


Gipuzkoako ipar-ekialdean
 dagoen mendia da, Higer
 lurmuturretik Pasaiko
 badairainoko eremuan,
 ekialdetik mendebaldera
 mendilerro bat osatuz.
 Erdialdean, 547 metroko,
 Allerru kasokan du puntu
 garaia.

JAIZKIBEL



MENDIA, HERRIA,
 HISTORIA ETA KULTURA
 UZTARTUZ, GURE
 IDENTITATEAREN IKURJI



JAIZKIBEL



XOXOLUR
 mendi kluba

xoxolurmendikluba@gmail.com

LEZO JAIZKIBEL

OARSOALDEA-BIDASOALDEAKO IBILALDI NEURTUA

2022ko maiatzaren 8an





TRABAJADORIAK

Frankismoaren esklaboak. 1936ko gerra amaitu eta hurrengo urteetan 3.500 lagunetik gora behartutako esklabotza lanak egiten aritu ziren Lezoko hainbat lekutan. Guadalupera doan Jaizkibeleko errepidea eurek egindakoa da. Lotarako erabiltzen zituzten barrakoen arrastoak ikus daitezke oraindik.

MARIA LABAIEN

XVI. mendeko sagardogilea. 1565. urtean Maria Labaien alargun lezoarrari Ternuara abiatzera zihoan "Saint Nicolas" baleontzia sagardoz hornitzeko jarriak zituen bere etxeko eta uztako 24 barrika konfiskatu zizkion Donostiako Udalak. Maria Labaienek salaketa jarri zuen eta, urtebetera, aldeko epaia lortu zuen.



ZABARRE PIRATA

Lezo betidanik itsasoarekin lotura izan duen herria izan da. Azken mendeetan, kaiak eta herriak berak hamaika pirata ikusi dituzte. Horietatik ezagunena eta kuttunena Zabarre pirata da. Itsasoan barrena egindako bidaietan lapurtutako aberastasunak lezoarrek inpartekatzera etortzen da Mendekoste jaietan.



TRAPUJALE

Lezoko inauteriko pertsonaia nagusia da. Jaizkibelen bizi da eta urtean behin jaisten da herrira. Marinazkanek eta bere Ziriekuek Trapujaleri zazpi ardiren hilketak leporatzen diote eta epaiketa baten ondoren, lepoa moztzen diote. Lezoar guziak trapujaleak gara.



KORRI XALTO TA BRINKO

20 urte bete dituen pailazo taldeak, Lezo, Trapujale, Zabarre, Jaizkibel... Euskal Herrian barrena ezagutzera emateaz gain, beren abesti, istorio eta ipuinekin herriko haurren iruditerian gure herriko txoko eta pertsonaietarako lekutxo bat egiten saiatu dira.



LEZO



Gipuzkoako ipar-ekialdeko udalerrria da. Oartzualdeko eskualdean dago, Irun, Hondarribia, Errenteria, Pasaia eta Oartzunekin batera, denen mugakide. Jaizkibel mendiaren magalean. 6.000 biztanle inguru ditu.